

Almudena Cid

Marrazkiak: Montse Martín

Itzultzailea: Mitzel Murua



Olympia

ZINTA GORRIA

Almudena Cid

Marrazkiak: Montse Martín

Itzultzailea: Mitzel Murua



Olympia

ZINTA GORRIA

ALBERDANIA

JATORRIZKO IZENBURUA: *La cinta roja*, lehen aldiz Alfaguara argitaletxeak (Penguin Random House Grupo Editorial, S.A.U.)
gaztelaniaz argitaraua.

1. argitaraldia: 2021eko otsaila.

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren
laguntza izan du liburu honek.

© 2015, Almudena Cid Tostado

© Ilustrazioena: 2015, Montserrat Martín López

© Itzulpenarena: 2021, Mixel Murua Irigoien

© Argitaraldi honena: 2021, **ALBERDANIA, SL**

Istillaga, 2, beheka C - 20304 Irun

Tel.: + 34 943 63 28 14

alberdania@alberdania.net

www.alberdania.net

Inprimatzailea: Alzate (Espartza Zaraitzu, Nafarroa)

ISBN digitala: 978-84-9868-657-8

ISBN papera: 978-84-9868-653-1

Legezko gordailua: D-127/2021

Olympia[♥]ren mundua



*Ez beldurtu ezusteko baten aurrean.
Egokitu zaitez hartara. Zuk pentsatu zenuena
ez bada gertatu zuk uste zenuen bezala,
ez du esan nahi gaizki egin duzunik.*



Hauek dira
nire ingurune
berria
osatzen duten
lagunak



LUCÍA

Berritsua eta alaia da,
hitzontzi irribarretsu bat.
Sekulako artista eskuko lanetan.
Olympiaren lagun-mina,
ekipo nazionalera
iritsi zenetik; beti
elkarrekin
dabiltza biak.



OLYMPIA

Sormen handia du. Arduratsua
eta perfektionista da, baina
egoskorra eta errebeldea ere bai,
neurri berean. Hamabi
urteko neska ameslaria;
gimnasia erritmikoa da
bere pasioa, eta desio
bat du gauza guztien
gainetik: zerbait aparta,
beste inork egin ez
duena, egitea.



ADRIAN

Marioren lagunik
handiena; beti elkarrekin
dabiltza. Alaia da
eta despistatu
samarra ere bai.



MARIO

Gimnasta bikaina, punta-
puntakoa. Familiaren
tradiziotik dator
gimnasiarako grina;
gimnasta moduan
lortu duen guztia
bere eguneroko
lanari zor dio.



CLARA

Cristinaren lagunik
handiena da talde
nasionalean. Gimnasta
aparta. Kaskoak
belarrietan ipinita
ibiltzen da beti,
musika eman
ahalean jarrita,
egurrean.



Begirale zorrotzak ditut...

KARINÑO

Mayaren txakurra. Txaletan bizi da gimnasta guztiekin batera, eta usaimen miresgarria du litxarreriak eta bihurrikeriak sumatzeko; txakur-radar bat da.



MAYA

Hautatzailea da, bulgariarra izatez. Neskekin bizi da, eta txorrotx-txorrotx darama talde nazionala, diziiplina handia behar baita urruti-urrutira iristeko.



Nolanahi ere, ezin ahaztu betiko lagunak...

ORTZI DAVID CARMEN


Gimnasiak etxetik urrundu du Olympia, baina betiko lagunek berekin segitzen dute, orain egunero ikusi ezin baditu ere.





Olympia

Zinta gorria




ALMUDENA CID

Marrazkiak:
Montse Martín

Itzultzailea:
Mixel Murua

ALBERDANIA



Izugarri handia zen nazioarteko irteera-gunea, aireportuko I terminalean. Jendetza handia zebilen hara eta hona, eta ilara kilometrikoak zeuden mostradoreen aurrean. Pantaila erraldoi batean agertzen zen Moskurako hegaldia, beste helmuga batzuen ondoan. Olympia bere hegaldiaren datuak ulertzen saiatzen ari zen, ez baitzuen inola ere galdu nahi.

ORDUA	KOMPAINIA	HELMUGA	HEGALDIAREN ZENB.	ATEA	TERMINALA	ONTZIRATZEA
11:30	AEROFLOT	Mosku	2154	65	I	10:45

Maleta, uztia, eskuko motxila aparatu guztiekin eta zorroa maillot guztiekin. Karga handiegia zeraman gainean eta karro baten bila joan zen bere traste guztiak han ipintzeko, ez baitzuen kontraktura bat izan nahi trapezioetan. Clarak beste hainbeste egin zuen bere aurretik, eta urruntzen ari zen.

Olympia korrika abiatu zen bere kaskoetako musikaren erritmoan dantzan; bizi-bizi zihoan, bere bidean agertzen zen orori sigi-sagaka iskin eginez. Bat-batean, Clararen aurre-aurrean gelditu zen, bien arteko tartea ondo neurtu

gabe. Eta pentsatzekoa dena gertatu zen...

Egia esan, kamera geldoan bezala gertatu zen guztia: Oly bere karroarekin hamar zentimetro eskasetara ikustean, Clarak platerak bezala zabaldu zituen begiak; Olympiak, berriz, izu-aurpegia jarri zuen, «Ai, ama!, ni ez naiz honetatik onik aterako» adieraziz bezala, eta besoak luzatu zituen frenatu nahian, mailek tope egin zezaten karroak aurrealdean zeukan barra txiki bati eutsiz. Ez zekiena zen barra hura mailek karrotik ez erortzeko zegoela han eta, horregatik, ezin zela tolestu kanporantz, baina bai barrurantz, eta konturatu zenerako, karroak frenatu, frenatu zuen, bai... baina nola!

-Danbaaaaaa!!!

-Aiii!... -esan zuen Olyk, karroa saihetsetan sartua zuela, sudurrari bi eskuekin helduta-. Ugte dut sugurra haugtsi dugdala...

Davidekin gogoratu zen; eskolarteko txapelketan erdi zorabiatuta utzi zuen baloikada hura hartutakoan, hari atera zitzaion ahotsaren berdin-berdina zeukan orain Olympiak.

-Odoletan zaude! -esan zion Clarak berehala.

Sherlock Holmes izan beharrik ez zegoen hura esateko, bistakoa zen-eta; baina, nolanahi ere, Olympia poztu egin zen Clara kezkatu egiten zela ikustean. Edo hori pentsatu zuen behinik behin, begi bat nola edo hala erdi ireki eta bere taldekidea zuri-zuri zegoela ikusi zuenean. Bazirudien hark hartu zuela zartakoa. Kaskoak ere erori zitzaizkion, hortik atera kontuak.



Terminal T2

Departures
Salidas

Hora Compañía Destino N°Vuelo Puerta Terminal Embarque

11:30 AEROFLOT MOSCÚ 2154 65 1 10:45



-Claga? -galdetu zion.

Taldekide beteranoak begiak tapatuak zituen, beste aldera begira jarrita, Oly hura betiko Oly izan beharrean, alien mutante bat balitz bezala, ahalmen galaktiko miresgarriak zeuzkana larreko sagu bihurtzeko, begietara zuzen begiratzuz gero.

Begi-kliska bat egiteko behar den denboran, korro bat sortu zen Olyren eta Clararen inguruan Barajasko aireportura agurtzera joan zitzaizkien beste neskekin; Mayaren senarra ere han zen eta Kariño txakur-radarra ere bai.

Luciak hartu zuen Olympia besotik eta jaikitzen lagundu zion; bitartean, taldekako hiru gimnastak Clararen inguruan zeuden. «Ei! Zartakoa neuk hartu dut, zer arraio!», pentsatu zuen bere artean, baina hau besterik ez zitzaion atera:

-Agdaioa!



Neskak komunera joan ziren handik pixka batera. Clara berehala suspertu zen -«Bai, ba! Normala!», pentsatu zuen Olympiak-. Lucíak komuneko paper zuria hartu, bi zati moztu eta, txurroen moduan bilduta, sudur zuloetatik sartu zizkion lagunari. Hipopotamo batena zirudien Olyren sudur-rak. Urrutitik begiratuta, kea botatzen ari zela ematen zuen.

-Ba, orain, abioiaren presioarekin-eta, igual papertxoek kortxo efektua egingo dizute eta lainoztagailu batetik bezala aterako zaizu odola.

-Ez esateko hori, kontxo! -protesta egin zuen berehala Clarak.

Olympiak ez zeukan garbi zergatik esan zuen, edo bera


defendatzeagatik bakean laga zezaten, edo, beldur zelako, norbaitek berriz ere odola aipatuz gero, haren irudimena martxan jarri eta ez ote zen osterara ere mareatuko. Aukeran, hobe aurrenekoa zela pentsatzea... Lagunaren aldetik konplizitate pixka bat sentitzen bazuen, gutxienez alde on bat aterako zion zartako ikaragarri hari.

Nolanahi ere, berehala ahaztu ziren Olympiaz, taldekako neska bat itxita gelditu baitzen bainuko kabinetako batean eta sekulako zarata baitzeturren handik; izan ere, neskak halako indarrez astintzen zuen atea, non ematen zuen behera botako zuela. Ia bost minutu behar izan zituzten neska ateratzeko, eta komunetik irten zirenean, han zegoen entzenatzailea kopeta ilun-ilunarekin, Olympiaren eta Clararen zain.

-Ondo-ondo pasa, Oly -garrasi egin zion Lucíak. Hogeita hamazazpigarren aldia zen hura esaten ziola albiste eman ziotenetik.

Hor hasi zen bere bidaia! Bi neskek besarkada handiekin agurtu zituzten gainerakoak, eta, maletak fakturatzeko zain zeuden bitartean, isil-isilik entzun zuten Mayak eman zien errieta, hain formalidade gutxi izateagatik. Gero, bidaiariak eta haien lagunak bereizten dituen marra gorria pasatu zuten.





Kontrolak pasatu eta segituan, Olympiak kolpetxo batzuk sentitu zituen bizkarrean, eta arnasari eutsiz jiratu zen, kontuz-kontuz, mugimenduarekin aktibatzen diren hamar dinamita-kartutxo aurpegian pegatuta izango bazenitu, zuk egingo zenukeen bezala.

-Zer?, orain boxeoan hasi al zara? -bota zion Mariok burla-aire ukitu batekin.

Olyk ezin zuen sinistu! Nolatan zeuden mutilak han? Eta bera sudur itxura harekin!

-Agdisdikako gimnagta gugtiak umore klagse begdina daugkazue, ala?

Ortzi gogora etorri zitzaion, eta nola hark atletismora pasatzera gonbidatu zuen behin, Gasteizko SHEE-IVEF Klubeko pabiloian uztaiak ihes egin eta haren atzetik korrika ikusi zuenean.

-Polit-polita zaude eta! -esan zion Adrianek barre txikien artean.

-Bai, nosgi: nesga polig-poligten sudugga daugkat, egzta?

-Tira, Oly, ez zaitez haserretu. Talde moduan parte